

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2010/02/24



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

24/02/2010

Organoa edo Batzordea: Osoko Bilkura.

Bilera-mota: ohikoa.

Eguna: 2010/02/24

Ordua: Hasiera: 19:30 eta bukaera: 19:45.

Tokia: Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoa.

Organo o Comisión: Pleno.

Tipo de Convocatoria: ordinaria.

Día: 24/02/2010

Hora: Comienzo, 19:30 y final, 19:45.

Lugar: Salón de Plenos del ayuntamiento de Legazpi.

Bertaratuak:

Sotero Plazaola Odriozola, alkatea.

Mikel Alzelai Zulaika.

Jon Erramun Uribeetxeberria Bidegain.

Ane Urkiola Alustiza, EAJko zinegotzia.

Francisco Javier Iraeta Alvarez, EAJko zinegotzia.

Amaia Alcelay Guerrico, EAJko zinegotzia.

Lucía Areizaga Aranburu, Alkarbideko zinegotzia

M^a Aranzazu Arizmendi Gereñu, Alkarbideko zinegotzia.

Vicente Garmendia Martinez, EAko zinegotzia.

Iñaki Sanchez Gastañares, EB-Berdeak taldeko zinegotzia.

Ana Salinero Maestre, atxiki gabeko zinegotzia.

Oscar J. Luis Murillo Perez, PSE-EEko zinegotzia.

Fernando Arakama Fernandez, kontuhartzailea.

Ainhoa Urruela Bordegarai, behin-behineko idazkaria.

Asistentes:

Sotero Plazaola Odriozola, Alcalde.

Mikel Alzelai Zulaika.

Jon Erramun Uribeetxeberria Bidegain .

Ane Urkiola Alustiza, concejal de PNV

Fco. Javier Iraeta Alvarez, concejal de PNV

Amaia Alcelay Guerrico, concejal de PNV

Lucía Areizaga Aranburu, concejal de Alkarbide

M^a Aranzazu Arizmendi Guereñu, concejal de Alkarbide

Vicente Garmendia Martinez, concejal de Alkarbide

Iñaki Sanchez Gastañares, concejal de EB-Berdeak

Ana Salinero Maestre, concejal no adscrita

Oscar J. Luis Murillo Perez, concejal de PSE-EE

Fernando Arakama Fernández, interventor.

Ainhoa Urruela Bordegarai, secretaria accidental.

Bertaratu ez direnak:

Jose Morcillo Guerrero, PSE-EEko zinegotzia.

Personas que no han acudido a la reunión:

Jose Morcillo Guerrero, concejal de PSE-EE

Eguneko aztergaiak:

1. Bidezkoa bada, joan den 2010/01/27ko bilkurari dagokion akta onartzea.

2. 2010eko martxoaren 8ko Adierazpen Instituzionala, Emakumeen Nazioarteko Eguna.

HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK:

3. Bidezkoa bada, Urola Garaiko Industrialdeak A-3 lursailean dagoen eraikinaren estalkia eta fatxada erabiltzeko eskatu duen lagapena onartzea.

LANGILEAK:

4. Bidezkoa bada, 2010. urterako lanpostuen zerrenda eta plantilla organikoa onartzea.

NEKAZARITZA:

5. Aizkorri-Aratz parke naturaleko patronatuan Udalaren ordezkaria eta ordezkoa izango direnak izendatzea.

Orden del Día:

1. Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 27/01/2010.

2. Declaración Intitucional 8 de marzo de 2010, día Internacional de las Mujeres.

URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:

3. Aprobación, si procede, de la cesión a Urola Garaiko Industrialdea del uso exclusivo de la cubierta y la fachada de edificio situado en la parcela A-3.

PERSONAL:

4. Aprobación, si procede de la Plantilla Orgánica y la Relación de Puestos de Trabajo para el año 2010.

AGRICULTURA:

5. Nombramiento de un representante y un sustituto, del Ayuntamiento para el Patronato del Parque Natural de Aizkorri-Aratz.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2010/02/24



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

24/02/2010

ALKATETZA:

6. Luzatu diren dekretuen berri ematea.
7. Eskariak eta galderak.

Esan-eginak eta erabakiak:

1. Bidezkoa bada, joan den 2010/01/27ko bilkurari dagokion akta onartzea.

Aurreko akta aldeko 11 botoekin onartu da.

Une honeta Iñaki Sanchez zinegotzia sartu da batzar aretoan.

2.- 2010eko martxoaren 8ko Adierazpen Instituzionala, Emakumeen Nazioarteko Eguna.

Jon Erramun Uribeetxeberria zinegotziak Emakumeen Nazioarteko Eguneko Adierazpen instituzionala irakurri du. Adierazpen hori akta honi erantsi zaiou.

Adierazpena onartzeko botoetara jo ondoren, aldeko 12 botoekin onartu da.

HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK:

3. Bidezkoa bada, Urola Garaiko Industrialdeak A-3 lursailean dagoen eraikinaren estalkia eta fatxada erabiltzeko eskatu duen lagapena onartzea.

Alkate jaunak hartu du hitza. Joan den 2010eko urtarrilaren 19an aurkeztu zen gaia: UGGISARI Urola kalea 8-A helbidean dagoen industrialdeko panel fotovoltaikoak kokatuko diren eraikinaren estalkia eta fatxada erabiltzeko lagatzea. Hirigintza batzordeak honako irizpena proposatzen dio Osoko Bilkurari:

Urola kalea 8-A helbidean dagoen industrialdeko panel fotovoltaikoak kokatuko diren eraikinaren estalkia eta fatxada erabiltzeko lagapena onartzea UGGISARI.

Irizpena erabakitzeke botoetara jo ondoren aldeko 10 botoekin eta 2 abstentziorekin (Oscar J. Luis Murillo Perez PSE-EEko zinegotzia eta Ana Salinero) onartu da.

ALCALDIA:

6. Dar cuenta de los decretos dictados.
7. Ruegos y preguntas.

Temas debatidos y acuerdos adoptados:

1. Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 27/01/2010.

Se aprueba el acta anterior con 11 votos a favor.

Se incorpora a la sesión el concejal Iñaki Sanchez.

2. Declaración Intitucional 8 de marzo de 2010, día Internacional de las Mujeres.

Jon Erramun Uribeetxeberria procede a la lectura de la declaración institucioal con motivo del día internacional de las mujeres. La declaración se adjunta al presente acta.

Sometida la declaración a votación se aprueba la misma con 12 votos a favor.

URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:

3. Aprobación, si procede, de la cesión a Urola Graiko Industrialdea del uso exclusivo de la cubierta y la fachada de edificio situado en la parcela A-3.

Toma la palabra el Alcalde. Se presenta ante la comisión de urbanismo del día 19 de enero de 2010 la cesión a UGGISA del uso exclusivo de cubierta y fachada del edificio donde se ubicarán los paneles fotovoltaicos del industrial sito en Urola kalea núm. 8-A. La comisión de Urbanismo acuerda proponer al Pleno el siguiente acuerdo:

Aprobar la Cesión a UGGISA del uso exclusivo de cubierta y fachada del edificio donde se ubicarán los paneles fotovoltaicos del industrial sito en Urola kalea núm. 8-A.

Sometido el dictamen a votación se aprueba el mismo con 10 votos a favor y dos abstenciones (Oscar J. Luis Murillo Perez, concejal de PSE-EE y Ana Salinero).

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2010/02/24



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

24/02/2010

LANGILEAK:

4. Bidezkoa bada, 2010. urterako lanpostuen zerrenda eta plantilla organikoa onartzea.

Alkate jaunak hartu du hitza. Joan den 2010eko otsailaren 17ko Pertsonal batzordearen ohiko bileran aztertu zenaren arabera, honako irizpena proposatzen zaio Osoko Bilkurari:

2010. urteko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onartzea.

Irizpena erabakitzeko botoetara jo ondoren aldeko 10 botorekin eta 2 abstentziorekin (Oscar J. Luis Murillo Perez PSE-EEko zinegotzia eta Ana Salinero) onartu da.

NEKAZARITZA:

5. Aizkorri-Aratz parke naturaleko patronatuan Udalaren ordezkaria eta ordezkoa izango direnak izendatzea.

Alkate jaunak hartu du hitza. Joan den 2010eko otsailaren 28ko Nekazaritza batzordean Osoko Bilkurari honako irizpena onartzea proposatzea erabaki zen:

Nekazaritza saileko zinegotzia izendatzea Aizkorri-Aratz parke naturaleko patronatuan Udalaren ordezkari izateko eta ordezkoa Alkate jauna proposatzea.

Jon Erramun Uribeetxeberria zinegotziak hartu du hitza. Dagoeneko, Aizkorri-Aratz parke naturalaren sorrera arautzeko urratsak ematen hasi dira eta sortuko den patronatuan bertan lursailak dituzten udalerriek hartuko dute parte. Kasu honetan, patronatu horretan Legazpiko Udalaren ordezkari izateko nekazaritza saileko zinegotzia izendatzea proposatzen da.

Irizpena erabakitzeko botoetara jo ondoren aldeko 10 botorekin eta 2 abstentziorekin (Oscar J. Luis Murillo Perez PSE-EEko zinegotzia eta Ana Salinero) onartu da.

PERSONAL:

4. Aprobación, si procede de la Plantilla Orgánica y la Relación de Puestos de Trabajo para el año 2010.

Toma la palabra el Alcalde. A la vista de lo tratado en la Comisión de Personal ordinaria celebrada el día 17 de febrero de 2010, se le propone al Pleno el siguiente dictamen:

Aprobar la Plantilla Orgánica y la Relación de Puestos de Trabajo para el año 2010.

Sometido el dictamen a votación se aprueba el mismo con 10 votos a favor y dos abstenciones (Oscar J. Luis Murillo Perez, concejal de PSE-EE y Ana Salinero).

AGRICULTURA:

5. Nombramiento de un representante y un sustituto, del Ayuntamiento para el Patronato del Parque Natural de Aizkorri-Aratz.

Toma la palabra el Alcalde. En la comisión de Agricultura celebrada el 28 de febrero de 2010, se le propone al pleno el siguiente dictamen:

Nombrar al concejal de agricultura como representante del Ayuntamiento en el Patronato del Parque Natural de Aizkorri-Aratz y al Alcalde como sustituto.

Toma la palabra Jon Erramun Uribeetxeberria. Se han empezado a dar los pasos de cara a regular la creación del parque natural de Aizkorri-Aratz y formaran parte del patronato todos los municipios que cuenten con terrenos dentro del mismo. En este caso se propone que sea el concejal de agricultura el representante del Ayuntamiento de Legazpi.

Sometido el dictamen a votación se aprueba el mismo con 10 votos a favor y dos abstenciones (Oscar J. Luis Murillo Perez, concejal de PSE-EE y Ana Salinero).

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2010/02/24



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

24/02/2010

ALKATETZA:

6. Luzatu diren dekretuen berri ematea.

Fco. Javier Iraeta Alvarez jaunak hartu du hitza eta Legazpiko Udaleko idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuen lehiaketarako oinarriei buruz galdetu du.

Behin-behineko idazkariak urtero Foru Aldundiak udaletxeetan hutsik dauden gaikuntza nazionalako lanpostuei buruz galdetzen diela jakinarazi du. Legazpiko Udalaren kasuan bai idazkariaren plaza eta bai kontu-hartzailearen plaza ez dute gaikuntza nazionalako funtzionarioek betetzen. Foru Aldundiak, ondoren, plaza horiek betetzeko oinarriak argitaratzen ditu Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta dagozkion hautaketa-prozesuak gaindituko dituztenek plaza horiek eskura ditzakete.

7. Eskariak eta galderak.

Ana Salinero zinegotziak hartu du hitza eta alderdi politikoei erabiltzen dituzten gelak korporazioko kide ez direnek erabiltzeko aukera duten galdetu du.

Alkate jaunak lokal horiek bere egunean banatu zirela adierazi du, talde politiko desberdinek erabil ditzaten.

Ana Salinero zinegotziak korporaziokoak ez diren pertsonen lokal horiek erabil ditzaketen galdetu du.

Alkate jaunak eta Mikel Alzelai zinegotziak korporaziokoak ez diren pertsonen erabil ditzaketela erantzun diote, bai kontsultak egiteko edo bilerak egiteko.

Alkateak, arratsaldeko 19:45ak direnean, amaitutzat eman du bilkura eta aztertu den guztia eta hartutako akordioak jasota gera daitezen akta hau egin dut eta nik, idazkariak, bertan jasotakoaren fede ematen dut.

ALCALDIA:

6. Dar cuenta de los decretos dictados.

Toma la palabra Fco. Javier Iraeta Alvarez para preguntar sobre las bases para el concurso de las plazas de Secretario e Interventor del Ayuntamiento de Legazpi.

La Secretaria accidental le indica que anualmente la Diputación solicita a los Ayuntamientos información sobre las plazas de habilitación nacional vacantes. En el caso del Ayuntamiento de Legazpi ni la plaza de interventor ni la de Secretario están cubiertas por personal con habilitación nacional. La diputación publica luego las bases en el BOG y estas pueden ser ocupadas por aquellas personas que pasen los correspondientes procesos de selección.

7. Ruegos y preguntas.

Toma la palabra Ana Salinero para preguntar por el uso de los locales asignados a los grupos políticos por parte de personas que no pertenecen a la corporación.

El Alcalde indica que tales locales ya fueron asignados en su día a los diferentes grupos políticos.

Ana Salinero pregunta si pueden ser utilizadas por personas ajenas a la corporación.

El Alcalde y Mikel Alzelai indican que pueden ser utilizadas por personal ajeno a la corporación para hacer consultas o realizar reuniones.

El alcalde levanta la sesión, siendo las 19:45 horas, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente acta de todo lo cual, yo, la secretaria, doy fe.

I

<p style="text-align: center;">UDAL-KORPORAZIOAREN OSOKO BILKURAREN AKTA</p> <p style="text-align: center;">2010/02/24</p>	<p style="text-align: center;"> LEGAZPIKO UDALA</p>	<p style="text-align: center;">ACTA DEL PLENO DE LA CORPORACION MUNICIPAL</p> <p style="text-align: center;">24/02/2010</p>
--	---	---

<p>Akta hau 2010/03/31an egindako bileran onartu zen:</p> <p><input type="checkbox"/> bere osotasunean, inolako aldaketarik gabe.</p> <p><input type="checkbox"/> baina egun honetako bileraren aktan jasotzen dira egin ziren aldaketak.</p>	<p>Este acta fue aprobada en la sesión del día 31/03/2010:</p> <p><input type="checkbox"/> en su integridad, sin ninguna objeción.</p> <p><input type="checkbox"/> si bien en el acta de la sesión de dicho día se recogen las objeciones registradas.</p>
<p style="text-align: center;">Ainhoa Urruela Bordegarai Idazkaria</p>	<p style="text-align: center;">Sotero Plazaola Odriozola Alkatea</p>